JEL EGUNA

Aberrija abenda barik, ezta ezer.
Ele bako errija ezta ezer.
Elia irakurri ta izdatzi barik, ezin bixi lei-
Euzkerea, ba, ezin bixi ixango da,
euzkeraz idazti ta irakurri
egiten ezpadogu.

Lgo. urtia | 1'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17' gn. | Saneurrija: 15 eunen

EMEN GARA!!

POZEZ ganezka gatoz eta poz oferi eutsi eziñez negaña yatofku begietara. Ezin dogu ziñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu gozetik gabera.

Eta EGUNA yoatzue gaur, euzkeldunok, zuen gurari ase-gatxak beteten; EGUNA zuen biotzen maiñetasunak piztu ta gaftsututen; EGUNA gura basetxe zar-aroen sukalde ilunak argituten; EGUNA bulaf eta arpegi gofidun arantzale sendo-bulaftsuen keska ta astuntasunak alaitu ta arinduten; EGUNA gustioi delka, oroen maitasun eskale, euzkeldunon kutun ixateko miñez.

Amesez ganezka ta itxaropen bixiz gatoz. Euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu eta gure abefkidiei atsegin yakezan izpafak euzkeraz bakafik, argi-argi eta ziatz-ziatz emoteko ustietan agertuten gara.

Urte bafi, bixitz-bafi, diño esaera zafak. Negafez intzirika, guda zital eta negargafian odoltuta argituten dau urtiofi begira jayoten gara, euzkerearen bixitz bafi ixateko asmoz. Eta gure jayotza txiruan, oroipenik maitekofena dogu gure erijaren azkatasunaren aldez euzko-mendi aberatsen gibeletan diñarduen gudari efimlentzat, eta euzkerearen aldez zintzoro ekin ebelako eralldiak ixan ziran euzkel-idazle argi ta jakintsuentzat gure gorasafe-rik beroena gordeten dogu. Gure aguña baita euzko izpafkari ta izpafingien tzat, berezlki gure aberíaren azkatasuna elburutzat dabela jokatuten dabenentza, "Euzkadi" ta "Tierra Vasca" buru dirala.

Etxeparen ames berberez kutsututa gatoz. Eta EGUNA biotz, begi eta gogoetan darabilgunek, idazle zafaren kanta bero ta gaftsuz didaf dagigu: Euzkera, jalgi adi kanpora! Euzkera, jalgi adi plazara! Euzkera, abil mundu gustira, EGUNA'ren egoetan!

Euzkadi'ko zelai loratsutan ludi osuari begira, Jel ikufitza oso-oso ta zindo-zindo aldeztu ta erakutsiko dogu, ikufitz ofen maitasun, ontasun eta zuzentasuna bastef gustietan erein, zabaldu, sendotu ta indartuteko gogo bizi.

Argal gatoz eta ez bafitxu. Bafia itxaropenez ganezka.

Aguf ta erdi, euzkeldunak!

Emen gara!!

Geure idazliak

Muniategi'taf Sabin, olerkari jayo ta idazle azkafa. Arteagatafa dogu. Gastia ta argija. Gaur euzko-gudarija.

Udalaren erabagija

Basurto'ko Gexotegija, Euzko - Jaurlaritzari eskeñi yako

Bilbao'ko udalak bere azkenengo batzafian beste erabagi askoren artian, Basurto'ko Getxotegi Deuna Euzko Jaurbidiari eskeñi dautso. Albo batez onartuba ixan da.

Zauritubak eta Bizkaiko ta Bilbao'ko gexo biartsubak be antxe ixango dabe sorospide ta abetalpena.

Gudako biafixanik asko ofelantxe efez egin al ixango dire.

Efijak abegi onez artu dau asmo au-

Egunon

Mila bederatzireun eta ogeta amasaspigafen urte bafi onek bezuza edef-edefa dakar euskaldunentzat bere lenengo biotz taupadaen otsarekin batean.

Ona, irakufle, zelango egunoroko puta daukozun gaur eskuetan: EGUNA. Eguna bera baizen argia izango alda ure egunoroko maite-maite au.

Euskerea zabaltzeko izkilurik gogofena, izkuntzea yaboteko gordagailurik egokiena; ofa zer izango dan gure egunoroko bafi au.

Beronen yayotzea ur egoala yakin eta beste barik, egunean-egunean ezin badot be e, tarteka-mart ka berton zerbait idazteko guraria sortu yatan gogoan, eta Artezkari jaunari eskatuko neuskio ukulu txikiren bat neuretzako jantzean beln gordeteko egunoroko yayo onetan.

Nire idazlanak beti izango dira laburtxoak, al dodan giñoan estutu ta moztuko ditut nire idazkiak, batez bere, gaurtik aufera egunkariak txikefagoak izango dirala kontuan eukirik; baña alan eta guzti bere, irakurleen gogoa euskera arlora ekarteko zuzenduak izango dira geyenetan, nire lan urítxo onek.

Gañera or gorago ikusten dozun idazpurua, "Egunon", ekafiko dabe beti nire idazlanak asikeran irakurle, izen au bere, berez labufa eta egokia dala deritxodalako, eta euskaldunak asko ta asko erabilten doguna alkafekin bafiketan asi baño lenago.

Auxe izango da izan bere zuk eta biok alkafekin "Egunon" onen bidez izango doguna, bafiketaldítxo bat; baña neuk bakar-bakafik berba egiten dodalarik gero, zuk, irakurle, nik difiodana gogoz irakufi.

Agur ba, eta urte-bafi zorjontsua izango al dozu irakurle.

ARUGAIN.

Ezin aztu

Euzkeltzale gartsu genduzanak

Jazokun bafija ikusi dau ludijak gaurko egunez. Euzkerea gure maitiak, azpaldijetan amets egin dauana, egi marduf bi urtu dogu gaur.

Euzkel Egunerokua!...

Amaika euzkeltzalen amesaz Abertzalion llóro zifiistu eziña, euzkerea kalezkale, etxes-etxe, egunero nabarf biafa. Ona emen egiztau ona emen efegiña autzo, euzkeldunen eskurik-esku, bere aberijaz bafiro jaubetutera.

Zelan aztu egun zoragaf jon gudaketa onen aldez euzkerearen baraitza bila jardun eta ekin jo eta ke iardun ixan daben euzkeltzaletazf

"Euzkara ja'g, adi kanpora!"... Etxepare'k jaustiriko iirintzija mamin egin dogu, eta egun gaitz oneitan egin be.

Ixen anitz dako kiguz gomutara...

Etxepare lenengo zala, Lafamendi, Astarloa, Mogel, Axular...

Sabin Eleizalde "Kirikiño", "Lizardi". "Aitzol"...

Lefokada amaitu eziña. Ixentza edefa. Erijotziak kendu euskuzan, baña, gaur, ementxe dogu euren arnasea. Arein lanak ete lofak, alegin eta ikasketak bixi diraue.

Euzkel egunerokua! Gure Abefija bein betiko ondatu gurarik etsayak datorkiguzanian, Euzkadi'ren ixatia ezer ztuta gelditu dedin, ganeratu yakuzanian, gure gogaren pitxija, Euzkerea, abertzaletasunaren indafez jagi da.

Euzkerea bixi da, eta euzkeldunok bixi gaitezan artian, bixiko be bai.

Amets edefa! Euzkel-egunerokua? Ona emen...!

Gure ametsa bete degu

Aspaldin, guk idazleok, agertu genduen, euzkera utsezko egunkari baten egafia. Egafi ori, lortu degu ba. Orain, ikusi egin bear nola erantzuten diogun egunkari ori. ¡Ez dedila il, jaio [illegible] ori ez da gertatuko guk [illegible]t, gu[illegible] gabiltzanok batez ere, lan asko egin dezakegula, ba egunero ez det esaten baño, astean bi edo iru aldiz, zerbaitt idatzi deza kegula uste det nik, guda [illegible]eko gertakizunakin, eta orela gure [illegible]gunkari au, oso apaiña ta bulatsu [illegible]aterako degu. Orain, lanean asi dogu[illegible]unok.

Zubek, ¿eztautsozube entzuten Sevilla'ko Koipe lustrerí? ¡Eztakixube orduban, gauzona zer dan; itzelak esaten dauz!

Lengo egun baten baferik egin geban ¡ak esan ebazan esalekuak! Negafgafijetan asi ta blokerijetaraño-kuak: "Ilusos, sinvergüenzas, canallas y ladrones. Sobre todo, ladrones".

Aor ba, bakixube, "sobre todo" lapuf batzuk ei-gara. Orixe esan eban baintzat lengunian, eta españafen beste esakun au be, dakixuben lez... "Lo dijo Blas... punto redondo".

Ofeik gauzok guri zuzenduta lastef baña, "Blas, punto redondo" etofi ezpa-zan be, 250 notin edo persona etofi ziran Donostia'tik Bilbao'ra, eta notin ofei ¿bai-aldakixube zer egin eutsen ontzijan sartu baño len?

Ba... ebezan diru gustijak ostu pitxijak be ostu, erestunak, erlojuak, domiñak, eskumuturetakuak eta ezer gauza zan gustija ostu, dana ostu, ta... esan ei-dan lez "txakufak eruateko moduan itxi".

Umekondo gixaxueri, euren sakel txubetan gozuak erosteko ebezan txakurtxikiñokuak kendu.

Eta gu lapufak ei-gara.

Eurak bafiz, santuak.

¡Ta mutilak altara-nausi bana gertau ofe!

* * *

Ofi gorago idatzi dogunetik ikusi ixango zenduben, lapufak zeintzuk diran. Orain erailtzaile edo kriminalik andiñak nortzuk diran ikusiko-ete dogu? "Cruz Roja Internacional" deritxonak, eta gure gobernuak erabagi auxe artu eben: gure eskubetan jausi diran pasista gudarijak eurei bijuftu, ta euren eskubetan jausi diran gure gudarijak, geureganduteko bidia egitia.

Asi dira berbakixunak. Euzko-Gobernubak 2.000 "prisionero,,'ren ixengadia emon dau, baña eurak eztabe ezer erantzuten, atzera egiten dabe, eztabe "prisioneruen" ixengadarik agertzen. ¿Zer dala-ta? Euren artian "prisionerorik" eztabelako? Gustijak erail dabezalako?

¡Oi, olakorik ba-litz zoritxafian, judi gustijaren aufian lotsagafi agertu biaf dabe! Ludi osuak epatuko dauz.

Guk ludi osuaren aufian azaldu dogu bi mila ta geyago bixi-bixirik ementxe doguzala, ta eurek, guk egin dogunga ezin dabenian... zerbait ixango da

¡Basatijak ezpa-dira!

Gure lendakarijak itz egin dausku

"Unerik latzenetan errijak barriztau ta berpiztu egiten dira. - Urte barri zorijontxua ixango dogun ustia dot. - Geure ixaera ta jokaeria ezagutuaz merezi dauan arreria egingo dautse beste laterrijak Euzkadi'ri"

Goxeko amaiketan lendakari jaunagana joan gara ta izketan asi da gurekin.

—Amaitu dan urtiatzaz, zef eretxi dozu?

—Jazokun lafijene, une latzenetan efijak bafiztau ta berpiztu egiten dirala. Lenagoko gixaldijan, efi oroi ja zorikua, ona orain Euzko-Efija'ri jazo. Nausikeri-zaliak efitafen aurka ixan zan aldi bat. Gero, efijen bixitzea ta azkatasuna laterikerijaren aurka.

Efi baten gogua menperatu eziña dala egiztau dogu. Orixe niri bafuban atsegin-zafadorik andijena da mostana.

—Eta urtebafi au, zorijontsuba ixango eta Euzkadi'rentzat?

—Olantxe uste dot nik, oso-osuan.

—Ta lubiran zer ixango da guretz azko abegija?

—Ezta efez erantzutia, baña, gure ixaera ta jokaerea ezagutubaz, merezi danan arerea egingo dautse Euzkadi'ri.

—Laterijen jokaeria zein ixango?

—Jakin ez ba. Baña laterijak guda-bilduf dirala esan biaf. Lengoaz orain-diño ezpaitira aztu.

Efijaren agintari efijaren ordezkuak eurak ixan biaf dabela edonun ontzat artzen asi diranezkero, efizaletasuna indartu egingo dala dirudi, ta ofezkero, gustijen'zako aldi ta gertaera onak ditxaroguz.

Ta ofenbestez, urtebafi zorijontsuba opaldubez, agurtu gaitu Euzko-Jaurbideko lendakari jaunak.

Eguna'k

urte barri on eta zorijontsu bat opa dautse bere idazle ta irakurle gustijei

EUZKO-EMAKUME MAITIA..

Gurutzea, Sabin, Euzko-Ikurriña... iru adore - ituburu

NEURE azkenengo idazlanean Ufutia Aldama'taf Joseba Mirena euzko-gudari adoretsuaren azken-nai idaztija euzkeraldu neutzun. Idazki aberkoi-edefa, "Beti ixan dagitazala neurija dan geure etxian iru gauzok: "Gurutzea, Sabin'aren argazkija ta euzko ikufiña". Eta itz onixekaz amaitzen eban bere azken idazlana: "Agaf laztana dagitzue bere bearkuna betetan pozez ilten dan seme ta neba-anayak".

Pozez doya erijotzara gaste zindua bere bearkunak dei dagiotsolako. Orixe da adorea, euzko-emakumia: arantzaz josita dagon bearkuna betetako bafia-indafa. Erijotzara doyala, diñotso bere bafiak eta ofaitiño pozez onartzen dau erijotzea. Bere oñetan ludi onetako atsegin-lorak euren usain zkak eskintzen eutsezan sasoi ameslarian... bijotzak maitasun-egafija iñozko gartsuen agertzen eutsanian... adimena jakin-guraz aseta eruanian... zabartu alde batera ludi onek bere altsuan eskinten eutsazan atsegin-lora guztijak eta bere bijotz-adimenak bearkumaren edefgafiz liluratu ondoren guda-zelai odoltsura jo eban Joseba Mirena'k. Nun edan ete-eban adore-esne sendo ori?

GURUTZEAN

Gizonaren bijotza atsegiñerako egiña dan ezkero, atsekabiak, naigabiak oñaziak min damotso. Bizaugaitik ez dogu gura atsekaberik, ez naigaberik, ez oñazerik. Ofaitiño negafezko aranean bixi garalako, nai ta nayezkua da jasatea. Eta geure jasarpenetan gendnak, adoretsuak izateko Golgota-mendin judafak gurutzatu eben Jesu'gana jo b laf dogu. Ez eban nai atsekaberik, baña atsekabiok geu zeruratzeko biaf-biafekuak ziran ezkero, geuri zeruko bide bakafa erakusteko, pozez besarkatu eban erijotz-magalera jaurtiko eban gurutzea. Josi dagiguzan euzko-emakumiok be geure bijotzeko begij-k gurutzean eta euzkotafok darabilgun guda anker onek geure gain dakafsguzan oñazemiñak eruapenez jasarteko adorea emongo dausku.

SABIN'AREN GOMUTAN... EUZKO-IKURIÑAN

Sabin, euzkotafon Irakasle Nagusi ta aita maitiak Euzkadi Ama'ren oñetan ixuri eban bere bizija. Mila ogerl ko ugarijak, gastaro gozua, osasun sendua, bake gentsatsua, azkatasun osua, eukan guztija abefiafen emon eban. Bere gomuteak indartuko gauz geure atsekabe-aldi lafietan. Euzkotafak gara bera lez ta Euzkadi'ren atsekabe-aldijak adorez ere mateko, berak argituko dau geure adimena, berak sendotuko dau geure bijotza. Geure euzko-ikufiñ zuri-gori-orlegian azaldu ebazan berak euzkotafaren ekandu-garbitasuna, odol-goritasuna ta zelai-orlegitasuna. Berak adoretuko gauz, ba, itxaropen-ogi apatzez alikatuaz, geuk gura ez-da, ganera ekafi dauskuen guda baltz onetan. Erijotzak ozbiafak zaurituak, diru-gajtziak naigabiak, urduritasunak, gorotuak, ikusieziñak ta zer dakit nik beste zenbat atsekabek zulatuko ez dabezan geure bijotzak izkanbila izugafi onetan ¡Sabin'aren gomuteak Euzko-Ikufiña'k dikufan euzko-bizlaren gomuteak adore sendoz aseko gauz euzko-emakumiok eta emakume adoretsuten aberatsa dan abefija ezta luzaro lotuta iraungo.

MAITE.

Azkatasuna...!

Irudimena nora narozu,
zoro bat banitza legez,
guda kalteak geyagotuten,
onek bailiran ezer ez.
Europa dana dakaft aufera,
gofituta lez odolez;
su-izkiluak ikusten ditu
goyan, itxasoz ta lufez.

卐 卐 卐

Neure bafiko zoro-arglak
ipin nau, danau, tamalez,
egakin, suaga, gudontziakaz
ingurututa gertuez.
Paxista zital, mairu ankefak,
palangista ta reketez
Iberia'ko luf atal danak
beterik ipiñi dauztez.

卐 卐 卐

Irudimena atzeden zaitez,
ezabiltz oso sentzunez,
efi-zaliak emen dagoz, ba,
kementsu eta adorez.
Begira ofa guda oñera
eta ezaizu egiez:
daukaguzala milakadaka
mutilak kemenez betez.

卐 卐 卐

Su-izkiluak bulaf senduaz
eurak eskuan ditubez
etsai ankefak ankajokoka
lastef igeska daruez.
Goiko-Jauna'ren laguntasunaz
eta mutilen adorez,
euzko-efia jabetuko da
beraren azkatasunez.

Efiko

"Kirikiño" gomutan dogu

Bustintza'taf Ebaitza Kirikiño, il zalo zortzi ufte betetu ziran atzo 31'gn. andiño Kirikiño euzkeltzale jatof eta erimiaren gabutiak gure bijotzetan bixi-bixirik diran. Amaikatxu lan egin eban gure Kirikiño maitiak Euzkera gaxo onen aldez! Kezka barik esan daike berak beste euzkeraz idatzi daunik eztala. Ezta berak beste euzkel-idazle sortu ebanik be.

¡Eta zelan maite ebazan euzkel idazliak! ¡Eta euzkeldun bafijak bere pozik andiña ziran! Gixon zindua gixon oso-osua, apala ta matekofa ixan zan gure Ebaista bera bixitzan, eta Euzkera eta Uskuz-idazko langille nagi-bakua. Beraz bere gomutia ezta bein be gugaudik juango. Beragaz artu-emonik ixan dogunok beti gomutauko dogu beran. Eta atseginez gomutan gero-ero on utsa zalako.

Bere gomutea lefo onein bitartez bafiztutian otoi dagijogun Goiko-Jaunari betiko atsedenian euki dagijan.

Goyan bego Bustintza'taf Ebaista'ren gogua.

Gaur, eguberdijan

Euzko - Eresbatza'ren jotaldija

Abando'ko gudaletxe nagosijan ixango da ereskixun entzungafija goxeko amafka ta erdijetan, Urtebafi eguna ospatuteko.

Talde au eraldu zanezkero, jotaldi bikañik ixan dogu bai gudarijentzat eta bai erijarentzat be. Galdi-une barik, Orue jaunaren agindubetara, aspertzeke diardube. Egitarau baririk agertubazoten dauskube, ekitaldi bakotxean.

Orixe da, ixan be, lanaren ezangafi rik onena. Erezijak gero ta edefaguak, eta gaitasuna ta artezita una biar diranak doguz.

Aldi bi ixango ditu egitarauak, eta ona emen:

Lenengo

"Gazteiz", biribilketa. — Franco'rena.
"Mirentxu", leneresija.—Guridi.
"Euzko-Eresijak", II".—Franco.

Bigafen ekitaldija

"Ereskai, sinfonia 5".
I Andante.
II Allegro.—Beethoven.
"Mendi-mendijan", fantasi.—Usandizaga'rena.

Normalrentzat ixango da erestaldijan, eta zer esanik ez entzule ugari ixango dana.

Arbolagaña guda-zaleko mofoskuak dozuz ofeik. Euzko-ikufiñ zoragofijari eusten dautsez bezin sendo eusten dautse izkilubai be, areyuaren aufian aufiki tzian.

Atzerriko izparrak

Sueziar gobernua paxistakin asarre.-Franko'ren zorra.-Gil Robles Salamanka'n zauritu dabe falangetarrak.-Washington'eko gobernuak azkatasun osua emon dau guda gayak eta egazkin erabillijak españar errepublikara bialtzeko

Txina'ko matxiñadiaren ondorenak.-Aranda'rik eztabe gura.-Doixtarrak bikoitz onen aurrian dagoz: edo izkilluak edo janarijak

LUF IKAREA

Tokio.—Luf ikara bat egon da Japon'en uri nagusitik 221 kilometrora Befogetabederatzi lagun il dira eta asun baño geyago zauritu.

AMNISTIARIK EZ

Biena.—Nazionak-sozialista ixenagaz ezagutzen diran taldekoak urte barijetarako eskatzen eben amnistija ukatua ixango dan bilduta dago.

Gobernuak egun bat lagun espetxalduentzat bakarik agindu dau Eurotatik berogeiren bat Woellardorsf'en dagozanak, 1.934'garreneko jazokunakatik lotuak.

DOIPURUAREN OSASUNA

Batikano.—Ata Santua makalik dagola-ta esan-mesan ugari egiten dira. Bera makalduta dakafen gaxoa astundo eta gogftuko ate dan bilduta dago.

ERIJOTZA UGARI

Txikago.—Gabon javetan gaspiroun eta berogetamaf lagun baño geyago il dira Lateri Batuetan yentien ugaritasunak sortutako zoritxafakatik. Bultzi eta antzerako tramankukak sortutako ezpiafakatik bakarik bosteun eta berogetamairu baño geyago zauritu dira.

EGAZKINEN ZORITXARAK

Varsobia.—Varsobia inguruan igarotan egazkin-zoritxaf baten lau lagun il dira eta zortzi zauritu.

Washington.—Egazkin bat galdu da eta berak erua, zan amabi lagun il ete diran ustia dago.

SUEZIA'R GOBERNUA PAXISTAKIN ASARE

Estokolmo.—Gobernuak agertu daben agiri baten difoanez eri ofek eztau beste ordezkari zuzenik ezagutzen Palencia jauna, erkalaren bialdua baño.

LATERIEN (ESTADUEN) JARDUNAK

Yugoeslabia'ko atzefi-arazuen arduradunak Rumani'ko arduradun bardiñagaz izketaldi bat egin dau, jardunaren gaya Bulgari'k Yugoeslabia'gaz egin nai daben itunben edo tratadua ixan da. Azkenengo ori Txekoeslobakia eta Rumani'gaz jotuta dago Balkan-itunbenaren bidez. Itunben ori egitian alkaf aldeztutera biaftu ziran. Orduan Bulgari ukatu egin zan itunben ori ixenpetzera, Grezi eta Turkia'n ametz egiten ebazan lufei begira.

Yugoeslabia'k Turkia'ri egin dautson izketaldian Grezi eta Turkia gatiaño luzatuko dala uste da.

Politiko alderdietan gafantzi andia emoten yakoe ikustaldi onei. Bulgari'ren Alkartasun Txikirako uferatzea lez etsifen dira.

AGINTARITZEA LAGA

Tokio.—Chang Kai Sek gudalburu nagusiak bere agintaritzea laga gura ixan dau, baña gobernuak eztautso onartu.

AGURE ERIMIA

Budapest.—Budapest'eko Efuki-etxe baten Zolechak'taf Pantzeska il da egun eta lau urtedun. 1832'garen urtian jayo zan. Alsokubin uritxunn, Arwa probintzijan. Amasei urte ebazala Hungria'ren azkatasunaren aldez Austria'ren aurka gudatu eban. Amazortzu urte ezeukozan Georgey gudalburuak Vilagos'en ertzian bere burua makuftu ebanian. Ala ta be etzan makuftu. Gaste aldra bategaz alkartuta gudatuten jafatu eban Transilvania'ko mendijen gibeletan. Azkenez, baña, Hungria'ren azkatasunaren aldezle bero ixan zan talde au menderatua ixan zan.

Agure onek bere bixitza osuan meatzetan lan egin eban. Amabi urte egin ebazan gudarostean.

OPOR BATEN ONDORENAK

Los Angeles.—Itxasontzietako gixonak egin daroen opofak Los Angeles aldian. Efi onetan bakarik egun eta bi milloi dolafetara igoten dira kaltiak. Pazifiko itxasuaren ertzetako urijetan bereun eta ogeta-amabi dolaf baño geyago.

FRANCO'REN ZORA

Berlin.—Doitxeri'k Franco'ri lagunduten orafarte eralgi edo gastau daben diruteza lareun milloe marko inguru ei da. Paxisten alde gudatuten diñarduen doixtaf gudariak ogetamabost mila dira.

INGALANDAREN ERITXIAR

Londres.—"New Chronicle" ingalandaf izparingiak diño España'ko Efepublikaren aldez zintzoro ta argi-argi jokatu biaf litxatekela.

"Doitxeri eta Itali'ri erakusten eztautsogun biaftean, diño, Franco'k irabazi eztagian lan egitera lotuak garala, paxistaf efi bitsu ofcik suagaz jolastuten jafaituko dabe."

Jarayan Alemani' Franco'ri laguntzeko darabiltzan gertakixunak adierazoten dauz.

"Inglaterra eta Frantze"—amaituten dau—España'ko arazuetan sartzeko arduria artu biaf dabe."

IKERTALDI GARANTZITSUAK

Roma.—Ciano'ko kondiak ikertaldi bat egin dau Alemani eta Portugal'eko ordezkariekaz. Izketaldi onetan estafaf auzietzaz jardungo zirala uste da.

GOGOZKO GUDARIAK

Glasgow.—Efi onetatik bereun gastek urten dabe España'rantz azkatasunaren aldez gudatuteko ustietan.

ERABAGI ZARATSUA

Washington.—Lateri onetako gobernuak artu daben erabagia ziurtauta geratu da. Erabagi ori bidez gobernu ofek azkatasuna emoten dau españaf gobernuari izkilu gayak eta egazkin zafak bialtzeko. Erabagi ofek eritxi on ugari sortu dauz.

Londres. — Washington'go gobernuak artu daben erabagiak ikara andia sortu dau. Izpafingi gustiak gai ofetzaz zaratatsu idazten dabe.

TXINA'KO MATXINADIAREN ONDORENAK

Nangkin.—Chank Kai Sek gudalburu nagusiak bigafenez be bere agintaritzea laga gura ixan dau, baña gobernuak eztautso onartu eta bere oniritxi osua emon dautso eta ilabeteko baimena bere osasuna zaintzeko.

Bijaf egingo da Chang Su Liang gudalburuaren epaya. Gudalburu ori da Chang Kai Sek atxilotu eta matxinadia sortu ebana.

MATXINADIA KUBA'N?

Habana.—Bein egon eta bilduf ugari nabatuten da efian. Gobernuaren arerijoen artian asafe bixia irakuften da lendakaria kendu dabelako eta matxinada zaratak dira.

ARANDA BASTARTU

Oviedo'tik iges egin daben gudariak esan dabenez Aranda gudalburua bastaftua ixango ete dan sufumufua dabil. Beste gudalburuak asafe egon biaf dira beragaz, gudea aufera eruan eta irabazten eztakilako. Bere ordezkotzat Varela ixentauten da.

OVIEDO ILUNPEAN

Laspel olea sutan kixkalduta geratu dalako, Oviedo uria ilunetan dago. Tximistargi oleak be erdi apuftuta, ezerestuta dagoz eta izpafingiak ezin dira atara.

ITUNBEN BAFIA

Roma.—Ciano'ko kondiak agertu da bez len itunben bafi bat ixenpetuko da be laster Itali'k eta Turkia'k. Itunben ori salerosketa eta itxasgintza gayetzaz ixango da.

EGIPTO LATERI BATZARA

Londres.—Egipto'ko laterfiak Laterí Batza'n sartzeko eskabidia egingo dau egunokaz.

EDO KAÑOYAK EDO JANARIJAK

Paris.—Geroago estu ta okerago ikusten da Alemani.

Biaf daben janaririk eztauka eta bi koitz onen aufian oldoztu edo pentsau biafian aurkitzen da: edo kañoyak edo janarijak. Gobernuak kañoak gurago dauzala erakusten dau. Ofela izkiluz josita dagon bitaftean, janarijen ufitasun andia nabatuten da.

DOIXTARAK ASAFE

Berlin.—Doixtaf izpafingi gustiak asafe bixija erakusten dabe Washington'go gobernuak artu daben erabagia dala-ta. Idazlan gogof eta beroak dagiez begaratik.

Españaf laterian komuni.moa agintari eta nagusi ixaterik eztabela laketuko difioe.

BATZORDE BAFI BAT

Ginebra.—Laterien Alkarteak begi onez ikusi dau españar gobernuak egin dautson agiria osakayetzaz jarcun eta arduratuko dan batzorde bat Valencia ra bialtzeko eskatzen. Batzorde onek Madrid'en osasunaren aldez ekingo dau. Batzordeko buru polakiataf osalari jakintsu bat eta pranizetaf bat ixango dira.

JANARIJAK EROSTEN

Barcelona.—Katalunya'ko gobernuak erosketa andi ta ugari bat egin dautso Rusia'ri. Ogetamabost mila tonelada urun, gari, gozaki eta ikatzetan. Gai onen lasterf elduko dira.

PAXISTAK ESTU

Londres.—Emengo politiko-etxietan uste danez españaf paxisten egoera txaf eta okerg da, Madrid jausiko zala uste zan egunetan gobernuaren indafen egorea baño makalago.

AUSTRIA'KO PERDERIKA IL DA

Viena.—Austria'ko Perderika aundiki ospatsua il da larogei urtedun. Guda nagusijan austri-hungriataf gudarostako buru ixan zan eta gudea amaitu zanian Txekoeslobakia'n gordeten ebazan ogasun gustiak kendu eutsoezan.

TXINA ETA JAPON ARTEKO AUZIJA

Nankin.

Txina eta Japon'go gobernuak atondu dira azkenengo matxiñadeatzak, euko daben zarateun. Txina'k egin diran ezpiefak ordainduko dauz eta azkezpena eskatu.

Atzoko eguna euzko jaurlaritza zaingoetan

Urte zarrez izpar gitxi.-Ixentatze barrijak.-Ixunak.-Itxastarren landoletzaz oar bat Langintzan.-Eizea galerazoten da.-Zuzentza eta Gogo-lantze zaingoan izpar batzuk.

LENDAKARITZA

Gaurko eguna

Euzko-Jaurlaritzako lendakariak ainbat ikertaldi euki dauz. Ospatsuenak onetxek ixan dira: Belarmino Tomas, Asturias'ko jaurlari, eta R. Olazaran'daf Jon, Santander eta Burgos'kua. Eurakin jardunaldi luzia egin eban. Izketaldi onetan ziran bafa be Aldasoro, Aznar eta De los Toyos jaunak.

Lendakari jaunaren ixil-idazkariak etzeban zer-esanik euki izpafinglentzat.

Urte zafaren amayerea eta bafiaren sareria ospatuteko lunch bat eskifi eutsoen lendakari jaunak izpafkariei.

Bere agufeko itzak ixan ziran: Uste dot sartuten garan urtia zorijontsuago igaroko dogula.

OSASUN ZAINGOA

Ixentatze bafijak

Izpafkaririk etzeban artu gai onetako arduradunak gustiz lanpetua egoafako. Baña bere izpafkariak ixentatze bafi oneik erakutsi euskuezan. Basefi Garbitasunaren aldezko batzorderako dira gustiak. Ara gixonen ixenak: Esteban Garzia'taf Kepa, Portuondo Uranga'taf Pausta, Basteta'taf Didaka, Zalbide'taf Eramun, Caballero Laka'taf Joseba, Elizalde'taf Koldobika eta Kafandi'taf Jokin.

ERI-ZAINTZA

Orueta jaunak izpafingilarijai auxe esan dausku:

"El Liberal" eta "Euzkadi" izpafingijai eun bana laurleko ixuna ezafi dautse, galazoriko idazlan bi argitaldu dabezelako.

EFI-LANAK ZAINGOA

Idazkari nagosijak zer esanik eztana adirazo dausku.

SOROSPIDE ZAINGOA

Ezer urterik eztauala gaurko egunian esan dausku Gracia jaunak. Zaingo onek eztau arazo andirik ixan.

LANGINTZA

Izpaf garantzitsuba bat bai, Zaingo onetan.

Itxastafak ontzijetaratuteko landola berezi bat eralduteko asmotan ikasi ta ikusi gabiltz. Ontzijetara sajtutia oneik batzun eskubetan egun ixan dira orafarte, ta ori agintarijai dagokije.

SALEROSKETA ETA ORNIKETA

Atzo goizez, Salerosketa eta Ornikeita arduradun Aldasoro jauna ikertuasmoz, an izan ziran bertako zaingoan Santander, Palenzia eta Burgos'ko jaurlari nagusia ta Lateri Nagusi'ko gudalburu Ciutat jauna.

Aldasoro jauna bera kanpoan zanez, bere idazkari Sanchez Elayo jaunak artu zituan. Ilbeltzaren zeigafenerako, Efege-Egunerako, efitafai tufola emango zaiela esan zien onek izpafkariai.

dalburu Ciutat jauna.

azten dijoala, gafieratu zuan. Efiko ofniketari buruz ese, alafingoak dituala.

NEKAZARITZA ZAINGOA

Euzko-jaurlaritza'ren erabagia, eiza edo kazan ibiltia ziaro galerazo da, Euzkadi'ko lufetan.

"Eguneroko"-an agertu ezkeroz, edozein bidez ezin leitekę eizan jardun. Lengo baimen gustijak alperiko orain

Izkiluba kenduaz ganera, zigor ego kiz galenduba ixango da agindu au auzi gadijana.

Ikertzale asko ixan dira gaur Zaingo onetan.

ZUZENTZA TA GOGO-LANTZEA

Espetxeratuen alda...

Izparkariak, zaingo ontan, Irizar eta Aretxalde jaunakin euki duten izketaldian, auxe jaso zuten: espetxeratual buniz laister egingo dan aldaketarako afeta dutenen lerokada edo izentaldea geiagotzen dijoala.

AUZIA ERABAKITZEKO BIDEAN

Izparkariak Auzitegiko ikusle nagusiari erabaki-bidean dauden Auziai buruz egifiko galderari, ziuf asko, datofen astez "Guardia Nacional Republicana" bastertulako taldeko buru ta buru-zagien aufkako auzia arakatuko zutela erantzun zien gure ikusle nagusiak.

Guda - idazkiak

AGUR adizkide: Azken idazkian, gure efiko zenbaiten eriotzatzaz mintzatzaiken "Urdiña", Gimon'daf Jabier eta Alberdi'ren eriotz berak eman nizkoan. Azkenekoren gizara ildako gurien berak ematen asiko dek, soil-soil izenak emateari.

Lopez-Uranga'taf Ander, sendagile gazte ura, il-uken. Guda asi zanetik zebilleken guda-ofietik guda-ofiera sendakintzaren onurak banatzen, eta egun batez, iretzi bearekoa iritxi uken. ¡Gizon bezela eman zian bizia gogajaren aldarean!

Eta Lopez-Uranga'k bezela, Gorostidi'taf Iñaki'k, Ufetabizkaja'taf Bitor'ek, Sanz'taf Paul'ek... ¡eta ainbat eta ainbat tolosafek eman ziaten bizia gogai-deun baten aldarean!

Ez adi ojetzaz aztu adixkide. Il dituk eta ez dituk iñoiz ire aufez-aufe arkituko. Betiko argiak dizdira bitzar ez adi ojetzaz ire ototz-aldietan aztu.

* * *

Ezin diat zuen jokubidea sifiztu. Zuena.., zuena bai, ire tartean ajz da. ¡Zoritxafez!

Baño ago. Edestilari biurtuko natzaik. Eta edestia azkendurik dedanean, arpegia gofiaren gori ez badek, ¿zer nai dek esatea? ez aiz lengoa. ¡"Faxismo" madarikatuaren pipiak joa ago!

* * *

Mutil-garalean uan. Nere kideko bat egin nian lagun aldi-batez eta alkafekin aritzen gifiuan jolasean. Gure jolas-leku kutunena "Matadero zafa" izan oi zitzaiguken. Eta Tolosa'ko "Matadero zar" ark alton urtedunak bezain biezaguna zaik: Kafera'taf Rokela.

Txikitan oi dana. Nik au nai ik u ra nai, alkafengandik ufutiratu gifiuan. "Matadero zafeko" afi zafak geiago ongi-etoririk etziateken opa. Kafera'k lengo lekuan jafaitzen zian jolasean. Nerekikoz, jolas-leku befiak aukera nizkian.

Urteak joan ituan. Galtza motzen ordez luzeak nerabijzkitzean. Aritzen bezela, xomofo bat senti nian ene baitan: euzkaltzaletasunaren xomofoa. Beronek eraginda, euzkaltzaleak bildu oi itukan etxera jo nian egun batez. Txikitandiko Kafera ura ikusi nian. Eta txiki-denboran alkafekin bezela, alkafekin jardun oi gifiuan biok euzkel-dantzak eta euzkera ikasten.

Edesti au geiegi ez luzatzeafen, ordea, ordutik orainaldirafioko xeetasunak urtera niak.

Guda ziritu zan lenengo egunak. Ama batek bi seme zizkian. Bata Kafera ene laguna, bestea bere ania. Au, karlista pufukatua, espetxeratua izan uken. Bestea, Rokela, lenengo egunetik eriaren gudari biurtu uken. Eta abertzale zanez, izkilu bat eskatu zian.

Urto'ko eguna dek. I, ene adixkidea, eta ire antzekoak, etxean gordeta zeudek.

Goiz artan, beste talde batekin, Rokela Urto'ra joan ukan. Muga-zaintzera. ¡Abertzaleak Abefia zaintzera joan ituan!

Eta Urto'n, Napafoa'ko muga-mugan, feketlen esku erori uan Rokela beste iru abertzaleekin batera.

Eta ona Rokela'ren gurutze-bidea asi. Urto'tik Leitza'ra, Leitza'tik Irufiara. Eta emengo "San Cristobal,'en igaro dizkik 5 ilabete.

Ara ordea egun batez Rokela'rentzat azkatasun eguna iritxi. ¡Tolosa'ra! Eta Tolosa gurean azke dalarik egun bat igaro dik.

¡Abertzale ukan ordea eta abertzale bat eun azke ikusi! Ufengo egunean berean Donostia'ra eraman ditek eta... Donostia'n azkatu uan bere anima gorputzarengandik. ¡Donostia'n "pusilatu" ditek orain dik orain Kafera'taf Rokela gaztea!

* * *

Tolosa'ko etxe bat. Bertan, ama bat negafez.

¿Zer gerta oneri?

Abertzalea zuan seme bat. Eta abertzalea zalako, oizia kendu zioten. Etziran jabetu, etziran jabetu nai, kristau zintzo bat, euzkaldun on bat, seme biotzdun bat iltzera zijoazela. Abertzalea zalakoa bakafik zitzajen ajola.

Beste anaia, negafez dagon ama onen beste semean Bilbao'n dago espetxeraturik.

Eta ama bat dago su ondoan negar da negar.

Or duk edestia. Or duk guda onen irudi bizia. ¿Ez alaiz lotzatzen? ¡Ez al zaik arpegia gofitu?

Eta efudun bakafak zuek zerate. Zuek eman zenioten su izkiluari, zuek ziritu zenuten guda madarikatu au.

¿Ez altzaik anima lufera erortzen? ¿Ez alzaik arpegia mafubi gofiaren gixakoa jartzen?

Najkoa diat. Naikoa bearko. Burura zetorkidak odola eta. Adierazi diaten edestia ik baekikela jakin... ¡ez aztutzearen befitu diat!

Ufen arte. Aguf.

UZTURE.

"Guerra a la inmoralidad" "Consignas libertarias"

Izenburu onegaz jafi dituzte F. A. I. deritzalon bazkunak, iragafki mordoxka etxetako ormetan. Ona emen izenburu oiien jafaipena:

"EL BAR anquilosa; es el vivero de la chuleria. Cerrémoslo.

LA TABERNA atrofia y degenera el espiritu combativo Cerrémosla.

EL BAILE es la antesala del prostibulo, matando las energias del joven luchador. Cerrémoslo.

CINES Y TEATROS, una misión: labor antifascista. De lo contrario, cerrémoslos.

Todo ser que acude a estos lugares es un ser despreciable.

¡Abajo el parasitismo!"

F. A. I.'koak gauz ofek egifeko gertu daudela, guk, abeftzaleok, batez ere gaztedia, efia onerazteko beafkunan ez al gaude? Nik ala uste; eta ala uste izana gain lan egin.

Gauz asko geitu al izanik gofiko lefo ofen, loikeria degu pufukatu beaf degun toki guztetan asmo biziakin gai berezia degulako.

Gure asaba-zafen egunetan ez baldin bazan birau entzuterik, gauf egunez bai degu; eta zoritxafez asko izan ere.

Lengo gaztediak ez zuela oitura txafik, anei aldiz entzun degu; gaufkoak bafiz bai ditula ikusten degu.

Zer edo nor da loikeri onek zabaldu arazi duan gaia? Ez dago buruari neke andirik eman beafik gauz au jakin eta erabakitzeko.

Gai asko izanik gelen geienekoa France'ko matxinada degu.

Ordutik ona marxismoa degu gure efietan. Bere zitalkeri eta irakuste txafak izan ditugu gaztediaren buru jartzen dirala; birauak beren aboetan dituela zabalda zaigu toki guztetan. Bai "plaza" edo emparantzetan, bai txa.de, edatetxe, antzoki bultzi eta basteF guztetan.

Gauf ez dago biraua entzuten ez dan tokirik eleiza izan ezik. Birau ofekin ikusi arazi nai digute guganako gofoto bada kisiaf zalientzako gofotoa duela ezin ukatu lezake.

Len esan bezela, marxismoa degu ajolagabekeriaren zabaltzalea: bere egoetan birauq zabaltzen da, euren mingafik lotuzuzaz aufxo, gazte, nausi eta emakumeeri.

Birauq gizonen aboetan itxusi baldin badago, askoz ere itxusiago bai ja emakume eta gazteen aboetan. Zer ta amal-dan gaztetxoak loikeriaren menpean ikustea.

(Gai onetxaz, Zuzentza ta Gogo Lantze Zaingoak lan aundia egiten asi dala uste det.)

Ofa o' gure abefiarendako gai bizi eta arduratsu.

Irakasleak, apaizak eta bate. ere gurasoak, beafuta daude aufari euzkeraz irakaste eta itz egitea, bada euzkereak ez du itz zatafik; ez du loikerik.

Gai onetan asmo bizia aftzen baldin badegu, gure abefiak ez du izango lotsarik beste laterien aufean au. egiteko. Efi garbiak itz garbiak.

ELE-ZALE

España'ko Errege ixan zanak eztau gudeatzazko jardunik gura

Niza.—España'ko efege ixan zana egun batzuetan emen ibili da. Izpafkarijak itz egin gura ixan dautse eta españaf lufaldeko jasokunetzaz jardutean erantzun dau:

Etxeidazue gudeatzaz ezer itandu, ango jasokunen bafirik eztakidalako izpafingijak diñoena besterik. Niriak eztira nigaz ezertarako gogoratu. Erlegiño eta bakeatzaz egiten dan gustia nere aolkunik barik egiten dala autortuten dot. Nire abefiarentzat ezertarako enazelako ete da?

Erabagi garrautziduna

Washington'go gobernuak azkatasuna emoten dau izkilu-gayak eta egazkiñak bialtzeko

Washington.—Gof Amerika'ko Laterí zaingoak bere baimena emon dau españaf efepublikako gobernu legezkoei izkiluak bialtzeko.

Agintariak esan dabe eztagoja zegafi eta legerik efitaf gudea sortu dan europaf laterfiei izkiluak bialtzia galerazoko dabenik.

Laterí-zaingoan baimen au emon dala bayeztu dabe eta Wimiled etxe altsua asiko da egazkiñak bialtzen.

Etxe au gertu dago bi miloe ta saspireun milla dolaren armak bialtzeko.

Fano guda-zatiko gudarijak dagoz onek.

Lagundu dayogun euzko lugiñari

Asko eta asko idatzi da izpafingi ta beste idazkijetan bere geure lugiñatzaz, baña idazkur asko idoro afen ingi gañera gauza gitxi eginda afte euren aldez. Lugiñak dira lanik gogofen, otz-bero geyen eta begirakunerik ilunenak euren afpegijan afturen dabezanak ¿nof gogoratu da orain afte eurakaz? ¿Nor ixanda orain afte jagi ta lan egin daben euren aldez? Gitxi ixan dira tamalez, eta lan gitxi egin da orain afte euren aldez.

Ludi onetan bixi ixateko ufdala bete biardogu ta berau betetako igalijak artuteko lufa gogof jo biarda. baña geyen-geyenok lufalda edef-edefak alde-batera itxi ta iges-egiten dogu, lugintzan baño efazago bixi ixateko, uri, ola, landola ta toki leunagoatara eure-tan lan efazaguak egin eta jan-orduban bere gosc-miiiki geyago, ta gero aketa aftu ta ufengo antzafki-tokira, baña eguraldi onaren ufengo txafa datof eta geure Euzkadi'ta bere eldu da guda zoritxafekoa ta orain ikusten dogu danok lugin matiak egiten daben lanak zelango saneufija biaf daben, bada apuftxu bat bakafik janarija ufitu dala ta bilduFez gagoz danok eta beinguan gagoz orain afte begiratu bere egin gura ixan ez deutsagun gixon baten bila zef-balt aterateko berari.

Bene-benetan uste dogu Euzkadi'ko jaurlarijak gogoratuko dirala lugiñakaz eta ayferakada andija egingo dabela eure aldez, berau dalako efiian lenengo biar daben gixona. ¡Lugiña!

TXIRI.

Euzkel - Eresia

Alaiki ta biotz zabalez aldi onetan entzuten dira euzkel eresi gaiak.

Zorionez, baditugu ta sortu zaizkigu abesti ta doñu alaf ta estituak, entzun eragten dizkiguten taldeak.

Dala ifatizkiñez, eresbatzaz ta abar, antziñan baña apuf bat gelago entzuten da gaur, Bilbao aldean.

Abando'ko Gudaroztearen "ostatuan" gaur entzungo da saio egokia, bertara urbiltzen bazera irakurle, atsegin izango zaizula derizkiot.

Entzungo dituzu Guridi, Franco ta Usandizaga'ren eres-lan bikafiak:

Orue jo zuzenlari dala, jotzale trebeak (oltura duten eran) gain-gañeko txukuntasuna ta joskera sortu araziko diote, eres lan oiek.

Auferuntz goaz gai oietan, apurka bereikan, txit pozgafi guretzat.

Jafai bire ofetatikan zuzenlari ospetsuak, ia alde guztetan entzuteko zoriona izaten degun, gure eresi lan kamur ta gozoak.

OT

Eusko Ikaskuntzaren Liburutegia

Durango

UDAL ZIŃEGOTZIAK. — Gauŕdan egunian gure eŕiko Udala ara ze eratan geldittu dan. Euzko-Alderdi-eltzalekoak, namar. Ekintzakoa, bat. Eŕkaldaŕ, bat, eta lau sozialista, gustiz amasei ziñegotzi.

Uri onetan orain afte, karlo-monarkikoak agintzen ixan dabela, eta gure esaera beti auxe ixanda. Uri agintariak zuritzan aufka au ta bestia egiten dabe, ez dautse jaramonik egiten gure eskabide bidezkoari, euren antzu aftuak daudiez eŕi egasunak bide-txaretik darabildez, berba batzuk euren izna gofotozko egintza da...

Txaŕto egiña, txaŕto egiña...

GURE ALDERDIKO ZIŃEGOTZIAK.—Lan aztunen menpean dagoz. Urte onetan daukagu begiratu baga nordan zuritzaren bidetik jaraitu ko dabela, eŕiaren ordezkoak ondasun aldeztzaleak zarielako, eta ez eŕiko ogasun jabeak, zuen eskuan dago abeftzaletasunaren garaitza. Egipeak erakutsi, berbak aixkak daroaz.

ERIOTZA.—Mentxakatoŕe ta Mardaritz'taŕ Kepa il da (G. B.) Goiko-Jaunak bere ondora eroan dau bixitzako garairik onenean Kepa. Euzko-langile baskide zuri ixan da, gixon apala eta erukiorra, baita benetako kistaŕa. Goiko-Jaunak emon bego betiko atzedena. Bere emazte, Azaola'taŕ Eukene, bere alabeak Jone ta Josebe, lagun gayakoz une atsekabe'tu onetan Irakuŕlea otoi bere gogoen alde.

EUZKO-GUDARI GABON-ZAŔEA. Aŕren idazkian dei-egin neban uri onetako gudari-mailetasuna daukan gustiari, bakotxak erakutsi dagiala bere esku-zabala aldeben neurŕraño guda oñian aurkitzen diran gure anaya eŕukitsuari bezuza egiteko, edeŕto erantzun dabe irigi zan arpidean, eskeŕak emole gustiari, eta ufenge idazkian, J. l., argita'duko dodaz.

Emole gustien ixenak, emon eztabenak eŕi dailela ainbat ariñen.

EUZKO-IDAZLE ETA IRAKUŔLE. Botrez opa dautzuet urte zafaren amaiera ona eta urte baŕi zoriontsua.

Sorkunde

Ondarreta (Getxo)

GALDAKANOTAŔAK, AGUŔ.—Bost edo sei urte eruan dodaz Galdakano neurte bixitaŕi maite oŕetatik euzko-izpaŕingiña euzkeraz izpaŕak bialduten, baña orain gutxi, euzkotaŕok nai ixan eztogun guda entzarikatu ori eskeŕak eŕi maite oŕetatik juan-biaŕa ixan dogun ezketiño, euzkerazko egunerokoa baŕijan bitaŕtez, aguŕik zuriren bat bialdu gura dautsubet. Batezbere galdakano.aŕ euzko-gudari kemenzuari.

Geuk geure eŕi maite oŕetan itxi dogun lekue ori, baña batzu-batek betetia gura zunke. Soŕtuko ete dogu geure naya?

Aguŕ, ba.

—Egunokaz ixan dogu "Basaŕi" euzkel-idazle ta olerkari azkaŕa esaututeko zoriona.

Aspaldijetan nenguan abeŕtzale kementsubau esaututeko tayesa ta, ara nun telefupe baten aurkituten garan anai kutunak bezela. Urte askotan aurkituko al gara osasunaz geure Abeŕi alde.

EGUNEROKO BAŔIJA. — Benetako portasuna aŕtuko euzkeltzaleok, euzkera utzez idatzitako egunerokoŕ bat Bilbao'n argitalduko dala jakiñak.

Urte baŕi ta euzko-izpaŕingi baŕi bat bat-batian yatoŕkiguz ludira. Geure izkiŕik onenak izango al-dira Euzkadi geure Abeŕi bakaŕa azkatuteko.

Ufen datoŕkigun urte baŕijau ixango da, euzkotajotzak igaro dauan baño zoriontsubago.

Basakiña

Begoña

URTE-BEŔI ZORIONTSU "EGUNA". — Amaika bidaŕ eskatu degu abeŕtzaliok, euzkera utseko egunerokoŕ izpaŕingia, ta "Euzkadi" egiñok ez dirala lo soŕuan egon garbi ikusi degu (danari eltzen zaio eguna), ta gauŕ Urte-baŕi eguna aukeratu dute euzkel egunerokoŕ bat ugatzatzeko eta. EGUNA euzkel-izena ezaŕi ta beŕiela txaidez kalez-kale txistua juaz aterako da izpaŕingi euzkerazko ga'te bizkoŕan.

"Euzkeltzale", besoak zabalik eta, biotz onez aŕtuko dezulata nago euzkel izen ogosua dan mutiko jato beŕi oŕi, ta gusti-gustiok alegindu beargara mutiko au gizon egin delgun, iraskiñak erositz eta euzkel-idazliak idazkoŕtzaren bidez bizi dedin janaria emanda. Oŕela gustiok alegintzen ba'gera ziuŕ egon egundo ez dala mutiko au ilko eta, denok eldu lanari

Urte-baŕi zoŕontzu EGUNA eta Goŕjaunak luzarorako bizia eman dalarula.

Uri onetako Monika Donea Kalmendaŕen eleizatan. Josu aufxo jaio beŕia, gustiz guŕtu, aintzatu, dute

Deuna Monike lekaime eleizan Natibitxate egunian eleizkizun politak egin zituzten, "gregoriano" abestiak gozoro abestu ere beŕtako lekaimiak, eta igande gozian beŕtako apaizak Alta Santua'ren one pena bedenkasiua eman zuan, baŕkamen asuak irabasirik igan da oŕetan eleizaratuzan gustiak.

Kalmendaŕen eleizan, Josu jaio be ta'ren bederatziŕenari igando oŕetan ofera eurak sitzalon, eta Gure Jauna ekirian zala eleizkizun politta izan du zan. Itzaldi edeŕ bat sezundu zuan beŕtako lekaidien zuzendariak "priorak" erderas ¡tamalgaŕia! aufera jaraitzen du aur jaio beŕiaren bederatziŕenak

⁂

Egun batzuk etxe baŕuan igarota gaxoxanian txaideratu da, Arana Goiri'taŕ Sabin (goyan bego)'ren laguna Asua'taŕ Jokin. Posten gera ta nai de gunian asaldu "tute" aldi bat bota delgun.

Aixerixa.

Basauri

